

Hartza eta Gizakia

Otsailaren 12ko arratsaldeak urteroko bisitaria izango du kalejiran: kateatutako Hartza. Eta jendez inguratuta egingo du bere ibilbidea, txikienean miresmena lagun. Baina zelakoa da berau?

Hartza, ibilera baldar eta makaleko plantigrado hau, bakarzalea da eta banaka edo talde txikietan ibiltze zalea. Esparru eza-gunean mugitzea gustatzen zaio eta ez da erasotzailea, mehatxatua sentitzen ez bada behintzat. Gehienak orojaleak dira, baina landareak jaten dituzte batez ere. Negua lo sakonean murgilduta eman arren, negualdia etetzen dute beraien hartzatxoak ernaldu eta titia emateko.

Mundu osoan oso hedatuta daude gizakia eta hartza lotzen dituzten ipuin eta kontakizunak eta gehienak oso molde antzekoak dira. Beharbada erlazio horren 'arrazoia', bien arteko traza fisikoa topa daiteke:

- Biak zutundu eta hanka biren artean ibil daitezke.
- Bien oinazpia antzekoa da, plantigradoak diren aldetik.
- Biak iletsuak dira (edo izan ziren sasoi batean).



Orojalea bai, umejalea ez (2002).

- Garai batean biek behar harko zituzten kobazuloak eta hori liskarbidea gerta zitekeen.
- Biek dute neguaren gogortasuna saihestu beharra eta hartzairen neguko loaldia beti egon da presente gizakiaren irudimenean

Kontakizun batzuk diotenez, hartzari ilea moztuz gero gizakia agertzen da. Tximinotik beharrean, hartzatik etorritakoak ote gara gizakiok?

Enrique Izagirre

* Ondoko orrian Hartza koplak daude. Soinu artxibok Udaleko webgunean daude entzungai, helbide honetan:
http://www.ermua.es/pags/index/eu_DetalleNoticia.asp?id=1831, 'Informazio gehiago' estekan.

Bertan, Euskal Birusak iaz egindako liburuxka ere deskargatu daiteke. Hartza inguruko informazio guztia jasotzen du liburuxka honek eta iaz herriko ikastetxetan banatu zen.



Patxi Urkoren historiaren partitura eskatu digute behin baino gehiagotan eta hemen ditutxistulari, soinu-jole edo interesa duen edozeinek! "Patxi Urkoko etorri jakun lehengo egunian esaten..."

Hartzaren koplak



Edateko, ura; lastotxoarekin bada, hobe! (2004).

ARTARRAI
OPARI DENDA

Goienkale, 5 • Telf. 943 17 44 19
ERMUA

OUTUMURO KAFETEGIA

- Kafe bereziak
- Aukera handia **TE** eta **INFUSIOETAN**
- Tarta bereziak

• Astelehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu

Cable Spot

25 urteko esperientzia dugu antena kolektiboak eta atezain automatikoak instalatzen.

Zure antena TDTRA egokitu. ETEN ANALOGIKOA GERTU DAGO!

EUSKALTELEN BANATZAILEA

Telefonia mugikorra, zuntz-optikoa, banda zabala, kable telebista... euskaltel

ERMUA. San Pelayo 4 behe. 943 172314

DO Mouth

OSASUNA ETA EDERTASUNA
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA

Marfil

FISIOTERAPIA

943 17 28 09
Goienkale, 12 - behea

Infreñu Taberna

Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com